



:: jardunaldia ::

IKASKETA-ZERBITZUA:

HEZKUNTZA KONPETENTZIAK GARATUZ, PROIEKTUKA LANEAN
azaroak 8, San Telmo Museoa [Donostia]

Ekimena, sormena eta parte-hartzea krisian eta etengabeko aldaketan dagoen **gizarte batek eskatzen dituen tresna eta konpetentziak** dira. Horrek behar-beharrezko bihurtzen du ziurgabetasunez beteriko etorkizunari aurre egiteko moduan dauden pertsonak prestatzea, tresna horiek eta etika solidarioa izango dituzten pertsonak.

Hau lortzeko **Ikasketa-Zerbitzu Solidario (I+ZS)** eredu pedagogikoa tresna bikaina bilakatzen da. Metodologia honen bidez, ikasleek inguru hurbilean benetako **proiektu solidario bat** egiten duten bitartean **oinarrizko konpetentziak garatzen** eta **edukiak ikasten** dituzte, **asmo pedagogikoak eta solidarioak** elkartuz.

Ikasketa-Zerbitzu Solidarioa **arrakasta handia izaten ari** da aurrera eramaten animatzen diren ikastetxeen artean, batez ere, **ikasle eta irakasleengan** izaten dituen emaitza onak direla eta. Horregatik, metodologia honen onurak zabaltzeko, **Jolas eta Ekin** eta **Donostiako Berritzegunea** berriro batu gara eta jardunaldi hau antolatu dugu.

HELBURUAK

1. Ikasketa-Zerbitzua (I+Z) eta ikastetxeetan egiten diren proiektuen eta arazo-egoeratan oinarritutako Unitate Didaktikoen arteko loturak egitea.
2. Ikasketa-Zerbitzuaren markoa, osagaiak, prozesuak eta material didaktikoak ezagutzea.
3. Esperientzia jakinetan oinarrituta Ikasketa-Zerbitzu metodologian sakontzea.
4. "Praktikak-Km0" antzematea eta I+Zaren arteko loturak aurreikustea.



PROGRAMA

8:45 – 9:00.

Harrera eta materialen banaketa.

09:00 - 9:10.

Aurkezpena: Jolas eta Ekin, Donostiako Berritzegunea eta San Telmo Museoa.

09:10 - 09:30.

Hitzaldia: Marisol Uribe. *Donostiako Berritzeguneko aholkularia.*

Hezkuntza Konpetentzien garapenaren bidean proiektuak lanean eta arazo-egoeran oinarritutako unitate didaktikoekin lanean: zer lotura dute eta izan dezakete Ikasketa-Zerbitzuarekin?

09:30 - 10:00.

Hitzaldi/tailer: Iván Barrio. *Jolas eta Ekinen koordinatzailea.*

Lan dinamika baten bidez Ikasketa-Zerbitzuaren markoa eta gakoak ikusi eta gero, I+Zko proiektuak garatzeko prozesua eta material didaktikoak aurkeztuko dira.

10:00 - 11:00.

Praktika onak: Anoeta Ikastola eta Jolas eta Ekin.

Ikastetxe baten esperientziatik abiatuta, I+Zaren prozesua azalduko da. Aldi berean, ikasgaiak metodologia hau aurrera eramateko ematen dizkiguten aukerak hausnartuko dira I+Zaren onurak azalduz.

11:00 – 11:30.

Atsedena

11:30 - 12:00.

Praktika onak: Zubiri Manteo BHI, Odol emileen Elkartea eta Groseko Gazteak.

Donostialdeko esperientzia batean oinarrituta, I+Zaren aukerak, zailtasunak eta, batez ere, emaitza onak aurkeztuko dira.

12:00 - 12:30.

Tailerra: Nire ikastetxean I+Z proiektuak identifikazioa.

Ikastetxe guztietan elkartasun proiektuak eta/edo ekintzak egiten dira, zer falta zaie Ikasketa-Zerbitzuko proiektuak izateko? Nola bilakatu ditzakegu I+Zko proiektuetan?

12:30.

AMAIERA

NORI ZUZENDUA

- Irakasleak [Lehen, Bigarren edo Goi Mailako hezkuntzakoak]
- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeak
- Orientatzaileak eta pedagogoak
- Magisteritza eta Pedagogia ikasleak
- Gizarte Langileak eta Hezitzaileak
- GKE-etako teknikariak
- Guraso Elkartek
- Interesatuta dagoen edonor



Data:

2018ko azaroaren 8an.

Hizkuntza:

Euskera

Lekua:

San Telmo Museoa (Plaza Zuloaga, 1 - 20003 Donostia).

Ordutegia:

8:45 - 12:30

Izen ematea:

Musutruk

[IZEN EMATEA ON-LINE](#) (izen ematea derrigorrezkoa)

Info +:

945 22 65 95 - [jolasetaein@gmail.com](mailto:jolasetaekin@gmail.com)

943 32 00 87 - marisoluria@donosgune.eus

Antolatzaileak:

Jolas eta Ekin eta Donostiako Berritzegunea



Languntzaileak:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta San Telmo Museoa

